

JM

Jakingo bazenu profeta izena nuela ez zinateke atrebituko izen horiek aukeratzen

Nitaz ezer ez dakite herrian
zutaz gehiegi
nitaz dakite naizela
itzalik ere merezi ez duen
hilerri bateko
bi hilobiren arteko
hirugarrena

Ezekiela,
profeta izena jarri zidatena ia ia
ikusi ditut gurpil sutsuak eta ia ia
hainbestetan joan naiz ia ia
zarakonditik mundura
bidebarritik Lekeitiora
zamora bueltan ia ia

Ohe azpian
gordeta biblia
Ezekielen profezia
Hobea izango zen Castrillo? Edo Peral? Villaescusa?

Inork ez dit prometituta lurralde hoberik dagoeneko nik aurkitu ez dudarik
Hau ez bada nire inperua edo nire Babilonia
izango da:
bizi naitekeena eta ia
Ibar labur bat zara, Ea, eta ia

Izenaren aurka edo izenari men
horrela bizi
ez al zen hobea JM besteei ezinezko izen bat jartzea baino?

Euri zitalari esker neu
izenik gabe
bi hilobiren arteko hirugarrena

Zain banengo bakarrik bizi izan naizen etxe guztietako arimak gosez hilko lirateke, kristauak ala ez.

Zain banengo ez lirateke morokilak egosiko
ez su egurretatik oenenak hilkutxetarako bereiziko
ez ganadua enteratuko hilko zarenaz
etxetik urrun
beste zerbait izateko
beste zerbait gu ez garena
neoiak eta milagroak
Zertan sinesten dute ateoak JM?
Neoiak eta milagroak
Noren alde egiten dute apostu ateoek JM?
Mirariaren atzetik al zabilta?

Barcelona es bona si la bolsa es ona
Mingotsaren mingotsaren mekromina

Ezkontza eguneko dokumentua
ukuiluko apustuen marmarrak
beste zerbait izateko beharra
zer sartu daiteke hilkutxa batean?
Zer gehiago sartu daiteke hilkutxa batean?

Egiteko momentua beti da orain JM. Hilobi bat egin diet unibertsoan zure mundu guztiei, zure erabaki guztiei. Saldu dut baserria, bataia Mundo, Juan, ezkondu naiz berriz, erditu eta bidertu San Ramonen estanpa begira nuela.

Gaixoa santoa
badirudi ez zekiela
ez zela berdin
izan nintekeela
Ezekiel edo Ezekuela

Jaioterriko paisaiak irensten utzi naiz, Zamoran, mahasti arteko hutsuneetan. Handiusterik gabeko muino erreak dira itxasoa, hilerri santuak gordetzen. Hemen Zierzoarekin sartzen da hondarra ate azpitik, ez mendebalarekin.

Tuberkuloriarekin hemen, hobeto arnasten da.

JM,
Itzuli naiz etorri nintzen bezela
Zulo urdin guztiak miatu ezinik
lurrealde prometiturik gabe
Ezekiel edo Ezekuela
Eremuko dunen atzetik nabil, betiko, Ea!

Ezekielaren mamuetako batek idatzia.